

# Noaia!!!



Izen-emate ugari  
San Silvestre lasterketarako



Jose Luis Artola, DVA

“Gure benetako indarra boluntarioetan dago”



Aseguru Artekaritza

## Eskatu aurrekontua

- autoak
- etxeak
- bizi-aseguruak
- komunitateak
- merkataritza-dendak
- enpresak
- pentsio planak



Telf: 943 37 11 18 telf/fax: 943 37 19 97 Plaza Uzturre, 8 Lasarte-Oria [pikabea@infonegocio.com](mailto:pikabea@infonegocio.com) J-0078EUS

**Otar-Goxo**  
El ikagaiak

Gabonetako berezitasunak  
Zorionak! Usurbildar guztiei



### Harategiko berezitasunak

Txahal azpizuna  
Behi azpizuna  
Esneko arkumea  
Txerrikumea  
Antxumea  
Kapoia  
Pularda, ehiza,  
Rosbeef, entrekota (1kg)...

### Urdaitegiko berezitasunak

Foie frexkoa  
Ahiate konfita,  
Mikuit  
Txatka naturala  
Izozkina  
Mahatsaz betetako pintada  
Budinak  
Iberiko aukera zabala

### Fruta denda berezitasunak

Ananak  
Gaztainak  
Mahatsa  
Orejoiak  
Kiwiak  
Bertako barazkiak  
Fruten selekzio paregabea



Zubiaurrenea, n°2 • ☎ 943 36 55 81 • 20170 Usurbil

## Albiste iruditan!!

# Berrerabilpenerako eskaintza zabala Jostailu Azokan

Eguberrien atarian, eta jostatzeko gaiak berosteko eskaintza geroz eta ugariagoa den honetan, etxean gordeta, ahaztuta izan ohi diren beste jostailu horiek berrerabiltzeko aukera eskaini dute laugarrenez, Hitz Aho Udarregi ikastolako guraso elkarteak, joan den larunbatean frontoian antolatu zuen Jostailu Azokan. Jostailuak berrerabili eta trukatzeko bultzatu nahi dute, sistema erraz baten bidez. Norbaitek aipatu ekimenerako utzitako jostailua, azokan bertan beste gai batengatik truka zezakeen. Goiz hotzari aurre eginez, herritarrak bertaratu ziren frontoira. Bertan zeuden mahaiei begira, argi dago; beste norbaitek gus-tura erabil ditzakeela jakin arren, etxetan era-biltzen ez diren jostailu asko dago.



LARUNBAT GOIZEAN EGIN ZEN JOSTAILU AZOKA FRONTOIAN.

## Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil  
Telefono zenbakia: 943 36 03 21

E-posta: [elkartea@noaua.com](mailto:elkartea@noaua.com)

[www.noaua.com](http://www.noaua.com)

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, [elkartea@noaua.com](mailto:elkartea@noaua.com)

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, [erredakzioa@noaua.com](mailto:erredakzioa@noaua.com)

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, [elkartea@noaua.com](mailto:elkartea@noaua.com)

Publizitatea: Bea Alda, [publizitatea@noaua.com](mailto:publizitatea@noaua.com)

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieto, Begoña Rekondo, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Irati Portu, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Maider Makazaga, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai, Belmonte Auzo Elkartea eta Udarregi ikastola.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Tirada: 2.800 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

## Aurkibidea

GERNIKAKO AKORDIOAREN AURKEZPENA **5. OR.**

DYAKO KIDEEKIN SOLASEAN **6. OR.**

SANTO TOMAS AZOKA, JENDETSUA **8. OR.**

OSTIRALEAN, HERRIA KANTU BATEAN **10. OR.**

ERREGA KABALGATAREN XEHETASUNAK **12. OR.**




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Javier Orbegozo**  
·ITURGINTZA  
·GASA ·BEROKUNTZA  
**659 602 789**  
Erreka-txiki 13, 3.esk USURBIL 943 37 29 37

Kale nagusia, 10  
Telf: 943 37 33 48  
943 37 09 13  
Okindegia - Gozotegia  
**LABE-GOXO**

Andoni Errazkin  
**Xukin**  
igeltseritza orokorra  
Barne eta kanpoko lanak  
**USURBIL**  
663 08 76 71 • 943 24 34 65



IMANOL UBEDA

## Norbaitek erantzun dezan...

**D**urangoko azokan geunden. Abenduaren 4an. Eguerdi partean edo izan zen. "Berriako kazetariak ospa egin dute Andoaingo erredakziora, antza denez, oso larri dago Xabier Lete". Literaturan espezialduriko argitale-txe baten stand-ean ginen, txanda bat egiten.

Bazkalorduan, kantari eta idazle oiartzuarra izan genuen hizpide -jaiotzez Oiartzungoa zen baina azken 45 urteak Urnietan egin zituen Xabier Letek-. Idazle aparta, kantuegile ona, baina ez zela oso kantari trebea zioen lagun batek. Ni berriz, erdi haserre, nahiko nukeela nik bere boza eta bere indarra eta bere interpretatzeko manera, "Ni naiz" bezalako abestia kantatzeko, esate baterako. Ez Dok Amairuko kide-ek egindako lana oso garrantzitsua izan zela, bidea zabaldu zutela, garai ilun hartan ez zela lan erraza izango...

Eztabaida horretan ginela, Durango aldeko ikastola batean aste batzuk lehenago gertatutakoa azaldu zuen stand-kide batek. Literatura kontuetaz ari ziren gela batean, eta ikasleetako inork ez omen zuela Xabier Lete ezagutzen. Ez zekitela nor zen. Sinestezina zen guretzat. Gu ere ikastolan ikasitakoak gara eta bere hainbat kantu ikasi genituen. Eta bere doi-

nuak jartzen zizkiguten. Ez Xabier Leterenak bakarrik, baita gainontzeko euskal kantarienak ere.

Gure kasu partikularrean gainera, musikazaleak izan dira beti gure etxean eta, bereziki, amari esker hezi eta hazi ginen Pantxoa eta Peio, Guk, Benito Lertxundi, Mikel Laboa edo Xabier Leteren doinuekin. Nana Mouskory, Demis Roussos eta antzekoak ere abesten zituen gure Pakitak (amak, alegia). Etxeko lanak egiten, *radiocasette* txiki baten konpainian abesten... Amaren irudi hori oso hurbil daukat oraindik orain.

Tira, seko harrituta geratu ginela lagun honek egindako errebelazioarekin. Horregatik, duela astebate txoko honetan bertan Ugaitz Agirrerren idatzi ederra irakurri nuenean, Durangotik ekarri nuen harridura baikortasunean bilakatu zen. Xabier Leterengatik baino, hezkuntza sistema bera zalantzan jartzen hasia nintzelako.

Akaso gehiegixto esatea izango da, baina gure arte-ondarearen hainbat erreferentzia ez ezagutzea, zein etxeok garen ez jakitea bezain larria iruditzen zait. Eta gero, bakoitzak erabaki dezala zer goratu nahi duen, zer kantatu nahi duen...

Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Ugaitz Agirre - Aritz Gorriti - Imanol Ubeda - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregerai

## Defizit publikoa murrizteko neurriak aplikatuko dira udalean

**2**009ko martxoaren 26an sinatu eta hilabete beranduago burutu zen osoko ohiko bilkuran onartu zen udal langileen lan baldintzen 2008-2010 hitzarmenaren akordioan aldaketak txertatuko ditu Usurbilgo Udalak. Epealdi horretarako onartu ziren soldaten igoerari dagokionean hain zuzen. Soldata igoera horien zati bat orain bertan behera utzi beharko da, 8/2010 Errege Dekretu Legeak sektore publikoko ordainsariei orokorki %5eko murrizketa aplikatzera behartzen baitu.

2010eko ekainaren 1etik aurrerako eraginekin, Udalak %2,86ko murrizketa aplikatzeko asmoa die udal langileei. Guztira, 10.795,06 euroko beharapena soldatetan, defizit publikoa gutxitzeko. Pertsonal Batzordeak presatutako proposamen hau joan den abenduaren 15ean burutu zen ezohiko osoko bilkuran aurkeztu eta eztabaidatu zuen udalbatzak. Aurrera atera zen, gehiengo osoaren babesarekin.



KUTXAREKIN ETA EUSKADIKO KUTXAREKIN HITZARMENA SINATU DU UEMAK. SINATZE-EKITALDIAN IZAN ZEN XABIER MIKEL ERREKONDO.

Ezker Abertzalea, EAJ-PNV eta PSE-EE-ko ordezkariak bat egin zuten proposamenarekin.

Aralarreko ordezkariak abstenitu ziren eta Alkarbide udal taldekoek aurka bozkatu zuten.

### Deba, UEMA barruan

Pasa den larunbatean, UEMAKo

batzarra egin zen Deban. Udalerri euskaldunen mankomunitateko kide bihurtu da Debako herria. Batzarra ospatzearekin batera, UEMAKo Udalek Gipuzkoako Kutxa eta Euskadiko Kutxarekin hitzarmena sinatu zuten. Sinatze-ekitaldian hartu zuen parte Xabier Mikel Errekondo Usurbilgo alkateak.

## Usurbilen ere aurkeztuko da Gernikako Akordioa

**G**ernikako Akordioaren atzean hainbat alderdi eta sindikatu daude. Akordio honen aldeko taldea osatu berri da herrian eta datorren urtarrilaren 2an, aurkezpen-ekitaldia egingo duten frontoian.

Aurkezpen ekitaldia, eguerdiko 13:00etan hasiko da frontoian. "Bake bidean aterabide demokratikoen akordioa" izeneko gizarteratzen ari dira ituna sinatu zuten alderdi politiko, sindikatu eta gizarte eragileen eskutik. Gizarteratze lan horren baitan kokatzen da Usurbilen burutuko den ekitaldia.

Akordioa honako eragileek sinatu zuten: Ezker Abertzalea, EA, Aralar, AB eta Alternatibak; LAB, Hiru, ESK, ELB, STEE-EILAS eta EHNE sindikatuak edota hainbat gizarte eragilek.

Besteak beste, Gernikako Akordioak ETARI nazioarteko komunitateak egiaz-

tatzeko su eten iraunkorra eta aldebakarrakoa aldarrikatzea eskatzen dio; esku-bide zibil eta politiko guztien aitortza, tartean Alderdi Politikoen Legea indargabetzea; inoren aurkako mehatxu, presio, jazarpen, atxiloketa eta tortura mota guztiak desagertzea; euskal preso politikoen aurka aplikatzen den espetxe-politika etetea...

### Mitchell printzipioak

Honez gain, elkarrizketa eta negoziazio politikorako gunea zabaltzea eskatzen dute, "Mitchell Printzipioak" deitutakoetan oinarrituta: konponbiderako bitarteko demokratiko eta baketsuak baliatuta soilik; indarkeariari aurkatasuna agertuta; eta erdietsitako akordioak errespetatuta.

Gainera, negoziazio prozesua eragile politiko, sindikal eta sozialen egitekoa baino ez dela izango diote. Eta elkarriz-



ALDERDI EZBERDINETAKO KIDEAK, AKORDIOAREN BERRI EMATEN.

keta politikoaren edukiek Euskal Herriko kultura politiko guztiak barne hartuko dituen akordioa izango dutela helburu. Gatazka politikoak eta jatorri guztietako bortizkeriek eragindako biktima ororentzat aitortza, adiskidetzeta eta erraparazioa eskatzen dute. ETARI eta Espainiako Gobernuari aldiz, indarkeriarik gabeko normalizazio politikoa garatzen joateko erabakiak eta ekimenak hartzea.

## Presoen eskubideen aldeko ekitaldiak, urtea amaitzeko

**H**ilabeteko eta urteko azken ostirala, Urtezhahar egunez egokitu da aurren. Ohikoa den moduan, Usurbilen Nahi Ditugu elkartekoek presoen eskubideen aldeko elkarretaratzeta deitu dute egun horretarako ere, iluntzeko 20:00etan. Ondoren, brindisa burutuko da Aitzaga parean.

Bestalde, urtero bezala, abenduaren 30ean ekitaldia egingo da.

### Urtarrilaren 8an, Bilbora

Azkenik, urtarrilaren 8rako presoen eskubideen aldeko manifestazio nazionala deitua dago Bilbon, "esku-bide guztiekin, euskal presoak Euskal Herrira!" lemapean.



ABENDUAREN 18KO GIZA-KATEAN, URTARRILAREN 8KO MANIFESTAZIORAKO DEIALDIA EGIN ZUTEN.

teilatua eta fatxadak  
**JOSE AIZPURUA UNANUE**



Obaba kalea 29 · ASTEASU

© 943 69 68 52 · 620 800 186

*Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!*

**USURBILGO HORTZ KLINIKA**

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4  
Tlf 943 37 08 78

20170  
USURBIL

## DYA Gipuzkoak Foru Aldundiaren aurtengo Boluntarioritza Saria jaso du

**I**a lau hamarkadetan burututako boluntario lanagatik eta jorratutako ibilbideagatik abendu hasieran DYA Gipuzkoa saritu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak. Errekonozimendua gipuzkoarrentzat dela oroitarazten du elkarteko presidente Jose Luis Artolak. Sortu zenetik egin duten moduan, aurrera begira ere berritzen eta zerbitzu eskaintza indartzen jarraitu nahi dute.

**NOAUA!** Aldundiaren saria jaso duzue, argitu ezazu zertan datzan.

**Jose Luis Artola.** Urtero elkarte edo Gobernu Kanpoko Erakunde (GKE) bati ematen diote boluntarioen saria, errekonozimendu gisa. Aurten, ikusi zuten DYA Gipuzkoak 37 urte daramatzala eta orain arte ez dugula halako sariarik jaso. DYA-ri ematea erabaki zuten, arlo askotan egindako lanagatik; anbulantziekin, Gizarte Zerbitzuetan, nazioarteko laguntzan parte hartzeagatik...

**N. DYA Gipuzkoarentzat sari honek zer suposatzen du?**

**J. L. A.** Gure benetako indarra boluntarioetan dago. Beti diot, DYA-ko jendeak saria egunero jasotzen duela, baten bat artatzean, irribarre edo begirada batekin nahikoa duela. Baina erakundeen aldetik halako errekonozimendua izatea oso polita da. Beti diot, gure aurrekontuaren %70a gipuzkoarrena da. Bazkide bakoitzak ahal duen neurrian, bere sosa ematen ditu.

**N. Sumatu duzuenagatik, zerk bultzatzen du herritar bat DYA-ko boluntario izatera?**

**J. L. A.** Jendeak ikusten du DYA hemen jaiotakoa dela, beraien beharra dugula ikusten dute. Horrek ere independentzi txiki bat ematen digu erakundeetatik. Gu beti izan gara berritzaileak. 1987-88an ia hil egin ginen, leku zehatz batzuetan sendagiledun anbulantziak jarri genituen. Esan ziguten, hori txorakeria zela, zerbitzua mantentzeko dirurik ez genuelako, oso garestia baitzen. Urteak pasa eta gero, gaur egun



JOSE LUIS ARTOLA ETA ION MARTIN, DYA-KO KIDEAK.

ikusten da sendagiledun anbulantzia haiek guk esandako lekuetan daudela jarrita. Beti ibili izan gara gauzak ondo egin eta berritzen saiatzen. Baten batek deitzen badigu, guri berdin zaigu bazkide den edo ez. Horren arabera, era batera edo bestera hainbeste jenderi tokatu zaio DYA-rekin harreman estua izatea...

### JOSE LUIS ARTOLA

“Bada jende gazte oso ona DYA-n sartzen dena eta asko laguntzen duena”

**N. Denborarekin bide berriak jorratzen joan zarete?**

**J. L. A.** Anbulantziekin hasi ginen. Garai hartan, Gipuzkoan eta estatu mailan sendagiledun anbulantziak jartzen lehenak izan ginen. Hortik aurrera, gauza piloa egin dugu. Bai prebentzioan, ekitaldietan... Gizarte zerbitzuetan, geroz eta behar handiagoa dago eta egongo da. Horretarako, ere beti begira egon behar duzu zer behar dauden, eta zer gauza egin ditzakezun. Gaur egun ongizateko ibilgailu piloa ikusten da. Baina amona bat seigarren pisuan bizi bada, igogailurik gabe, kalera jaitsi behar

da. Halako gauzak guk egiten ditugu.

**N. Lan ezezaguna ere bada zuena?**

**J. L. A.** Beti egin dugu lan ezezaguna. Beti diot, gu kaleko jendearentzat gaudela eta gure benetako indarra hori dela. Guk jendearen beharra bete behar dugu. Eduki genuen denboraldi bat, bakarrik bizi zirenak, bere burua lurrera botatzen zutela gu joateko eta azkenean konpainia egiteko. Eta horretan ere bada lana. Jendeari beti esaten diogu, DYA-ko boluntarioa izateko esan zenbat denbora duzun eta horren arabera ikusiko dugu. Formazioa eskaintzen dugu, heziketan urteetan ikasi eta ikusi duguna, jendeari zabaldu nahi diogu. Gure lana hori da, esperientzia hori jendartean zabaltzea.

**N. Heldu edo gazteen artean solidaritate falta dagoela esan izan da. Zuen ikuspegitik hala al da?**

**J. L. A.** Hemen bada jende gazte oso ona lehen bezala, ez gara geratu behar gazteak berekoiak direla ideia horrekin, azkenean badaude halakoak eta bestelakoak garai batean bezala. Baina orain bada jende gazte oso ona DYA-n sartzen dena eta asko laguntzen duena. Kasu batzuetan gainera, lehen gurasoa laguntzen aritu ostean, orain seme-alaba ari da.

## “Gipuzkoan dagoen sendagiledun ambulanzia bakarra, Usurbilen dago”

NOAUA! Edozein jaietan, ekitalditan ikus dezakegu DYA-ko ambulanzia bat. Baina zer da ambulanzia horretatik ikusten dena gaur egun?

Jose Luis Artola. Hainbeste ikusten duzu. Anbulantzian egon eta gauza horiek ikusteak markatu egiten zaitu. Neure kasuan, anbulantzian hasi nintzeanean, parranda garaitan zen. Bi istripuetara joaten zara eta ikusten duzu, azkenean edatea eta autoa hartzea ezinezkoa dela. Batzuetan zeure burua ikusten duzu, nolakoak garen, jendea zenbat desfasatzen den. Jendeak batzuetan ez du ikusten hor dagoena nahi duelako dagoela, laguntzeko. Usurbilen halakorik gertatu ez zaigun arren, lehen baino gehiagotan batzuk arpa jotzera etortzen dira ambulanzitari baita bertako jendea-ri jotzera ere.

### AURRERA BEGIRA

“Ongizate alorrean lan piloa dago egiteko. Prebentzio lanetan, gero eta gehiago”

**N. Boluntarioa izanda, ematen dena baino gehiago jasotzen al da?**

J. L. A. Denetarik dago. Bakoitzak bere motibazioak ditu; batzuk esperientziaren bat bizitzea egokitu zaielako etxean, laguntzeko grina dutelako... DYA-n emateko sartzen zara. Baina baten batek eskerrak ematen dituenean, bakoitzari bere poz puntua ematen dio. Gainera, giro polita dagoela ikusten du eta horren arabera, gustura segitzen du.

**N. Aurrera begira, zer nolako erronkak dituzue?**

J. L. A. Aurrera begira ongizate alorrean lan piloa dago egiteko. Prebentzio lanetan geroz eta gehiago. Gure erronka nagusia, ikastolatik ume guztiak osasun ikastaro batekin ateratzea litzateke. Bestalde, gaur egun nahiko lekua ez dugunez, boluntarioak elkartzeko eta formazioa eskaintzeko zentro berri bat eraikitzeko egitasmoa dago Donostian.



DYAKO BOLUNTARIO TALDE BAT, TARTEAN, HAINBAT USURBILDAR.

**N. Noiz eta nolatan ematen da DYA Usurbilen sortzeko pausoa?**

J. L. A. 1986an Behe Oriako DYA sortu zen Lasarte-Orian. Handik urte batzuetara, harremanetan hasi ginen Andatza Mendi Taldekoekin eta haien lokalera joatera animatu gintuzten. Jende kopuru dezente ginen, Usurbila etortzea ideia ona iruditu zitzaigun. Urte batzuetan mantendu egin genuen Usurbil eta Lasarteko gunea jende berdinarekin. Azkenean, arazo gehiagoren ostean, Usurbilen kokatu ginen erabat.

**N. Delegatu bezala, zenbat oroitza-pen...**

J. L. A. Anbulantzi bat ekarri genuen urtebetera. Lehen “todoterreno” ambulanzia hemen muntatu genuen, Udalaren laguntzarekin. Barruko ekipamendua Udalak ordaindu zuen, duela 15 urte.

Ordutik ambulanzia Usurbilgo Udalak jarri zuen, leku askotan egon da. Datorren urtean jubilatuko dugu. Bestalde, Gipuzkoan dagoen sendagiledun ambulanzia Usurbilen dago.

### Ion Martin, Usurbilgo delegatu berria

**N. Orain delegatu lana uztekotan zara. Erreleboa dator.**

J. L. A. Usurbilgo, Gipuzkoako eta Euskadiko presidente naiz, baita estatu mailan ere. Halako gauzetan atzetik zein datorren ikusi behar da. Ion da hori. 16 urterekin hasi zen DYA-n, bere ogibidea ambulanzietan ibiltzea da.

**N. Zein da delegatu baten lana?**

Ion Martin. Bat gehiago zara. Baina konpromisoa hartzen duzu ekintzen eta boluntarioen koordinazioa eramateko, basean batez ere. Zerbitzuak nola bete behar diren, formazioa...

**N. Zer dela eta sartu zinen DYA-n?**

J. L. A. 16 urte arte ezin zen sartu

DYA-n. Sorospen ikastaro bat egin nuen. Hasieran moztuta nengoen sartzeko. Egund batez probatzeko sartu nintzen. Gau bat egin nuen eta bi istripu eta hiruzpalau abisu izan nituen. Jende gehiago behar zen laguntzeko. Poliki-poliki pausok ematen joan naiz.

**N. Zer eman dizu DYA-k?**

I. M. Familia berri bat, ilusioa eta lagunak egiteko aukera. DYA-n sartu izan ez banintz, ez nintzen Eusko Jaurlaritzako ambulanzietan lanean jardungo.

Laguntzarako eta larrialdietarako, DYA-ko telefono zenbakia: 943 46 46 22.

## Babarrun eta sagardo onenak

### saritu ziren pasa den igandeko Santo Tomas azokan

**J**ende asko izan zen igandean frontoiaren inguruan, Santo Tomas azokaren bueltan. Ohi bezala, jakinmin handia piztu zuten sagardo zein babarrun lehiaketek. Olarri baserriko babarruna eta Gorostidi baserriko sagardoa izan dira aurtengo sarituak.

Aurtengoan, babarrun lehiaketan, Kalezarreko Olarri baserriko Juan Kruz Matxain izan da lehen saria eskuratu duena. Bigarren Juan Carlos Balerdi (Kalezar) izan da eta, hirugarren, Joxe Ramon Iburguren, Txokoaldeko Iruindegi baserrikoa. 50 izan ziren aurkeztu zirenak.

**Gorostidiko sagardoa nagusi**  
Sagardo lehiaketan, Aitor Alkorta Egiolleta baserrikoa (Kalezar) izan zen hirugarren saria eraman zuena. Joxe Manuel Lizarralde Etxetxo baserrikoa (Zubieta) bigarren izan zen eta lehen saria Manu Etxeberriak (Gorostidi baserria, Aginaga) eskuratu zuen. 17 izan ziren lehiaketara aurkeztu zirenak.

#### Taloa, txistorra, babarrun zukua...

Usurbilen Nahi Ditugu elkartekoek taloa saltzen lan ugari izan zuten.

DBHko ikasleak, ordea, txistorra saltzen aritu ziren.

Usurbiltzenekoak, aldiz, produktu ekologikoekin osatutako mahaia jarri zuten eta garagardo ekologikoa banatu zuten.

NOAUA!ren eskutik, azokara bertaratu zirenak babarrun zukua dastatzeko



SAGARDOAN, AGINAGAKO GOROSTIDI BASERRIAK ERAMAN ZUEN LEHEN SARIA.



BABARRUN LEHIAKETAN, OLARRI BASERRIAK (KALEZAR).

aukera izan zuten. Atxega jauregikoek egindako zuku beroa esker onez hartu zuten askok eta askok.

Kantu Taldekoek ere azokan hartu zuten parte. Baserritarrez jantzita ibili ziren jiran, Santo Tomas egunari doi-

nua jarriz. Nabarmentzekoa Usurbilgo Sagardo Egunaren antolatzaileek egindako lana; goiza eman zuten sagardoa partitzen.

*www.noaua.com webgunean, azokari buruzko bideoa ikusgai.*



SARI BANAKETA AMAITU BERRITAN, JUANTXO ESNAL ETA URTZI OLASAGASTI

ARITU ZIREN DESAFIDAN.

ARRANDEGIA  
**PELLO**  
Puntapax Kalea, 7  
TIF 36 21 64  
USURBIL

BORDATXO  
*edaritegia*  
PINTXO BEREZIAK  
Zubiaurrenea, 5  
Telf: 943 37 10 42

**ALIPROX**  
Kale Nagusia 10  
☎ 943 361 182  
USURBIL

Patri Jatetxea  
  
K/nagusia 14. ☎ 943 362 725



# **BAKE BIDEAN ATERABIDE DEMOKRATIKOEN AKORDIOA**



**GERNIKAKO AKORDIOAREN ALDEKO  
USURBILGO TALDEAREN AURKEZPENA  
URTARRILAREN 2an,  
13:00ean PILOTALEKUAN**

## Gabon kantuen doinuak udalerrri osora hedatuko dira ostiralean

**A**benduaren 24an, nonahi eta noiznahi entzun ahal izango dira eguberrietako abestiak. Goizetik iluntzera Kaxkoan, Zubietan edota Aginagan hainbat herritar kalera irtengo dira euskal kantuok abestera. Kasuan kasuko antolatzaileek, baserritar jantziekin agertzera deitzen dituzte herritarrek.

Hona hemen, deituak dauden ekitaldi eta hitzorduak:

09:00 Aginagan, Elizatik irteera.

15:30 Zubietarrak Ameritik irteera.

17:00 Parrokiakoak, Parrokia paretik irtengo dira.

18:00 Presoen eskubideen aldeko Olentzero, Aitzaga aurretik abiatuta. Triki-poteoa Kaxkoan.



UDARREGI IKASTOLAKO IKASLEAK IZAN ZIREN GOIZTIARRENAK. ASTEARTEAN ARITU ZIREN KANTUAN.

**Lurda**  
purtxileria

**USURBILEN  
IREKI BERRIA!!!**

kale Nagusia 6, (Bake epaitegi ondoan) USURBIL

# LIZARDI LIBRYBENDA

**GABONETAKO EROSKETETAN...**

**ERABILI EZAZU LIZARDIN  
KULTURA BONUA !!!**

**+e k+** Zer da kultura bonua?

Kutxazainek ematen dituzten sarrera-txartelen moduko dokumentu bat, establezimendu bakar batean kultura-produktuetan **40 euro kontsumitzeko aukera** ematen duena, nahiz eta **erosleak 25 euro ordaindu**. Gainerako 15 euroak Eusko Jaurlaritzak jartzen ditu.

Zer eros dezaket bonuarekin?

**LIBURUAK, MUSIKA, DVDak...**

Non lortu dezaket bonua: Servikutxan

Etxebeste kalea, 1  
© 943 361 115

**Poxpolin**  
mertzeria

Gabonetan oparitzeko  
aukera aparta!!!

Zorionak eta  
urte berri on!!!

943 36 82 06  
Zubiaurrenea 3, baxua

**movistar**  
**HERNANI**

**ELKANO KALEA 13, HERNANI 943 33 26 00**

Gure denda berri duzulako, gabonetarako **PROMOZIO** bereziak ditugu; Mugikorra, mugikorrenzat internet-a, ADSL-a, **TRIO** (linea + adsl + imagenio) kontratatzean, **PACK** bat erosterakoan... **OPARIAK!!!**

**ZATOZI KONPROMISORIK GABE,  
AHOLKUA EMANGO DIZUGU**

Bisita ezazu ere gure DENDA "TELEMAR", digital eta HD telebistetan, lurreko eta satellite bidezko antenetan adituak. **ESKATU AURREKONTUA.**

Telekomunikabide ministeriako erregistro zb 6855

**ELKANO KALEA 13 (movistar ondoan) ETA NAGUSIA 7,  
HERNANI 943 55 33 99**

ZORIONAK  
ETA  
URTE BERRI ON

Nostalgia zoriontsuak opa dituzue  
Usurbilhar gaitza!

batanen nasa!



## Errege Kabalgatak amaiera emango die eguberriei

**Z**iortza Gazte Taldekoak Errege Kabalgataren nondik norakoak prestatzen dabilta asteotan. Urtero moduan, urtarrilaren 5ean ospatuko da. Goizean, 11:30etik aurrera gutun bilketa burutuko da frontoian. Arratsaldean Urdaiatatik behera abiatuko dira hiru erregeak lagun-tzaileez inguratua.

Aurten aldaketa txiki bat dago, ordutegiari lotutakoa. Iluntzeko 17:30etan abiatuko dira Kabalgatakoak Usurbil aldera. Kaxko inguruko erronda egin ostean, frontoian osatuko dute ibilbidea azken ekitaldiarekin. Kabalgata ondo lotuta uzteko, bertan parte hartzeko



URTARRILAREN 5EAN, GOIZEZ, GUTUNAK JASOKO DIRA FRONTOIAN.

asmoa dutenekin antolatzaileek bilera deitu dute urtarrilaren 3rako.

Iluntzeko 19:30ean bilduko dira Ziortzako lokalean.

*Abenduaren 22tik urtarrilaren 3ra itxita, baina gabonetan...*

### OLARRONDOko GAUAK GABONETAN:

Abenduak 24: 01:00etatik aurrera

URTEZAHARREAN: 01:00etatik aurrera

URTARRILAK 5, ERREGE GAUA: 01:00etik aurrera

*Zorionak eta urte berri on!*



Olarrondo Jatetxea  
5 zenbakia. USURBIL  
erreserbak: ☎ 943 360 376  
[www.olarrondo.com](http://www.olarrondo.com)

## “Midas erregearen altxorra”, haur zinema Sutegin

**U**rtero moduan Errege Eguna pasa arte, ez dira egunerokotasunera itzuliko haur eta gaztetxoak. Hori dela eta, urte berriko lehen egunetan oporraldian murgilduta jarraituko dutela jakinda, film eta txotxongilo emanaldi bana antolatu ditu Usurbilgo Udalak.

Izugarri basoaren sakonean errepor-taje bat egiten ari zirela, izaki higuin-garri batek ACH kateko bi kazetari eraso ditu. Laguntza behar dute eta SOS mezua hedatu da. Gertatutakoaren berri emateko Aita Arratoi, oporrez gozaten hasi berri diren Cathy zikoinarekin, Nico arratoiarekin eta euren lankide Lorriekin kontaktuan jarriko da. Hor abiatzen da, datorren urtarrilaren 4an eskainiko den “Midas erregearen altxorra”,

5-10 urte artekoei zuzendutako filma. Arratsaldeko 17:00etatik aurrera proiektatuko da Sutegiko auditorioan. Sarrerak 2 eurotan salgai egongo dira.

### Urtarrilaren 3an, txotxongiloak kiroldegian

Haur zinemaz gain, txotxongilo emanaldia ere antolatu du Usurbilgo Udalak urte berriko lehen egunetarako. Behibis Antzerki Taldekoek “Paperezko istorioak” izeneko ikuskizuna eskainiko dute. Lutxi da kontakizuneko protagonista. Nahi duen guztia du, baina bakarrik sentitzen da. Lierni Fresnedo eta Patricia Franco egile dituen lanean, gurasoek ez dute tarterik Lutxirekin jolasteko, baina egoera erabat aldatuko da Trompi izeneko txakur bat erosten dutenean. Gerora ordea, oporretara beraiekin joan ezin duelako txakurra zabortegei



“MIDAS ERREGEAREN ALTXORRA”  
URTARRILAREN 4AN EMANGO DUTE.

batean abandonatuko dute. Emanaldiko sarrerak aldeztu aurretik eros daitezke 2 euroren truke, Oiardo Kiroldegian. Edo egunean bertan, 3 euro ordainduta. 5 urtetik gorako haurrei zuzendutako emanaldia, urtarrilaren 3an, arratsaldeko 17:00etatik aurrera eskainiko da Sutegiko auditorioan.

### Ludoteka Aginagan, eguberriak amaitu arte

**A**steazkenaz geroztik zabalik Adago ludoteka Aginagan. Goizez hiru orduz zabalik egongo da begiralearen zaintzapean, 10:30-13:30 artean. Honako egunotan: abenduaren 23, 27, 28, 29 eta 30ean. Urtarrilaren 3, 4, 5, 7 eta 8an ere.

Bestetik, abenduaren 30erako **bertso-antzerkia** izango da Aginagako ludotekan, “Bikokotea” izeneko emanaldia 17:00etatik aurrera.

Eta **ipuin kontaketa saioa**, urtarrilaren 4rako. 16:00etan hasita, “Ipuin bat, ipuin bi entzungo ditugu, zu eta ni”.

### Igandean, Txan magoa Sutegin

**I**uskizun berriarekin itzuliko da Sutegiko auditoriora, Txan Magoa. “Txan-txetan” izeneko eta ordubete inguru iraungo duen emanaldiarekin. Bertaratzen diren haur eta gaztetxoak magiaren mundu liluragarrian murgiltzeko aukera eskainiko die Txan magoak.

Hitzordua, igande honetan, abenduak 26, 17:30ean Sutegiko auditorioan. Usurbilgo Udalak antolatu eta UEMA-k lagundutako ekitaldirako sarrerak 2 eurotan eros daitezke aldeztu aurretik Oiardo Kiroldegian edota egunean bertan, 3 euroren truke.

### Gabonetako Parkea, hiru egunez zabalik

**U**rtero gai zehatz baten inguruko Gabonetako Parkea zabalitzen dute Oiardo Kiroldegian. Aurten, euskal mitologia izango du ardatz 2-12 urte arteko haur eta gaztetxoek primeran pasatzeko irekiko duten gunek.

Abenduaren 27tik 29ra arte egongo da zabalik, goizez, 11:30-13:30 artean eta 16:30-19:30 artean. Sarrera doan.

Bi gune nagusi izango ditu, bat 2-6 urte arteko haurrei zuzendutakoa eta bestea 6-12 urte arteko gaztetxoek zuzendutakoa.

**JUANTXO**  
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8  
943 370 008

**URDAINTZI**  
eraikuntzak

649 43 54 75/76  
943 36 72 64

URDAINTZI@EUSKALMAILA.COM

**ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK**

**txirriStra**

KONTSEJUZARRA 13  
943 360 466

pintxoak  
ogitartekoak  
plateer konbinatuak

**TABERNA**

## Euskararen Eguna ospatu dugu!



**A**banduaren 3an, Euskararen Eguna ospatu genuen. Goizean Haur Eskolara joatekoak ginen baina oso eguraldi txarra egin zuenez ikastolan gelditu ginen frontoi txikia apaintzen. Ondoren, Argixoren bideoa ikusi eta hamaiketako ederra egin genuen elkarrekin: gazta eta menbriloa! Hori mokadutxoa! Arratsaldean LHko ikasleak etorri ziren gure geletara antzerkiak egitera eta ondoren, etxeratu aurretik gure zain zeudenei abesti batzuk kantatu genizkien. Ederki pasa genuen! Gora gure euskara!

HH4ko haurrak

## Gabonetako saskiek badute jaberik

**N**OAUA! Kultur Elkartek, urtero, hiru saski zozketatu ohi ditu. Bi, elkarteko bazkideen artean. Eta hirugarrena, NOAUA! aldizkarian publizitatea jartzen duten bezeroen artean. Hauek izan dira aurtengo irabazleak.

Bazkideen artean, Olatz Arantzastroke (507. bazkidea) eta Bautista Balerdi (455. bazkidea).

Publizitatea jartzen duten bezeroen artean, Alkorta harategia izan da saskia eramán duena.



ALKORTA HARATEGIA,  
BEZERO SARITUA.



BAUTISTA BALERDI,  
SARIA JASO BERRITAN.



OLATZ ANAIAREKIN  
ETORRI ZEN SARI BILA.

## Udarregi ikastolaren eraikin berria, Hezkuntza Mahaian aztergai

**U**daleko hautetsiek eta Udarregi ikastolako zuzendari, irakasle eta guraso ordezkariak osatzen duten Hezkuntza Mahaia Udarregi ikastolaren eraikin berriaren aurreproiektuaren nondik norakoak ezagutzen ditu jada. Joan den ostegunean burutu zuten bilkuran, udal arkitektoak egindako lana aurkeztu zuten. Azken urteotan Usurbilen egon den populazio hazkundearen ondorioz, ikastolaren eraikinak txiki geratu dira.

Haur Hezkuntza osoa, hau da 0-3 eta 3-6 zikloak bere baitan hartuko lituzkeen eraikin baten beharra ikusi zen.

Egoeraren konponbide gisa, Eusko Jaurlaritzaren eraikuntzeta-rako legediak dioena errespetatuta, aurreproiektua egin da.

**LATAILLADE**  **ITURGINTZA**

GASA  
BEROKUNTZA  
MANTENIMENDUA ETA  
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Aritzitxo 8. behea - 943 363 348 - 609 888 021

Josue  
Igeltseritza:

 606 37 21 05

Atallu pol.28 USURBIL

 **TAXI**

677 37 34 66  
943 36 69 69

Jose Etxabe (24h) USURBIL

## Abenduaren 31n San Silvestre, urteari agur esateko moduko lasterketa

**H**urbilago Elkartekoak abenduaren 31n ospatuko den I. San Silvestre herri lasterketa prestatzeko lanetan murgilduta daude. Herritarrak hasi dira izena ematen. Astebete falta da eta dagoeneko 250 baino gehiago dira izena eman dutenak.

Antolakuntzatik berri eman dutenez, jada 253 lagunek izena eman dute urteko azken egunean ospatuko den herri lasterketan. Gaineratzen dutenez, lasterketarako 370 kamiseta prest izango dira abenduaren 24tik aurrera. Elkarteko establezimenduren batera joatea nahikoa izango du, izena

eman duenak kamiseta jasotzeko. Artean, izena emateko epeak zabalik jarraitzen du oraindik.

Gogoan izan, bi bide daude herri lasterketan parte hartu ahal izateko; noaua.com web orrialdean dagoen loturan klikatuta edota Hurbilagoko establezimenduetara joanda.

### Abenduaren 31n, 17:00etan

Hitzordua, abenduaren 31n, arratsaldeko 17:00etan Mikel Laboa plazan. Kaxkoa zeharkatuko duen lau kilometro inguruko ibilbidea osatu beharko dute lasterkariek. Jai kutsuko ekimena denez, ez da lehiarik izango.



MIKEL LABOA PLAZATIK  
ABIATUKO DA LASTERKETA. IRUDIA  
BAXURDE KROSSEKOA DA.

Partaideek ez dute dortsalik jasoko eta sariak lasterkari guztien artean zozketatuko dira.

## Mendi Astearekin pozik dira Andatzako kideak

**G**ustura amaitu du Andatza Mendi Elkarteko antolakuntza talde berriak, ospatu berri den Mendi Astea.

Guztira bost ekitaldi antolatu dituzte aurtengoan. Ikus-entzunezko hiru emaldi; Harkaitz Rezola usurbildarra

hiru lagunekin batera Perura egindako bidaia erakusten zuen proiektzioa, Nepaleko Manaslu mendira burututako Oskar Porrassen bidaia eta azkenik, Felipe Uriarteren eskutik, Kirgizistanen bizitako esperientzia. Gainera, helduei eta haurrei zuzendutako irteera bana ere ospatu zen asteburuan. Helduenean,

Orio eta Usurbil arteko ibilbidea osatu zen. Haurrena, Bordatxo mendi aldera bideratu zen.

Aurrerantzean Andatzakoen berri sarean ere izango dugu, zabaldu berri duten andatza.com web orrialdean klikatuta. Oraingoan, Mendi Asteko irudi eta albisteez hornitu dute ataria.



ANDATZA MENDI TALDEKOAK, ANDATZAKO BUZOIAN.  
EZKERREKO ARGAZKIAN, MALEN ETA LIDE BORDATXOKO GURUTZEAN.





## Agenda !!

**Abenduak 26 igandea**  
- San Esteban Txiki Eguna Urdaiaga auzoan. Meza 11:00etan. Ondoren, hamaiketako.  
- Txan magoa, 17:30ean Sutegin.

**Abenduak 29 asteazkena**  
"Gipuzkoaren jatorria", DVDaren proiektzioa, 19:30ean Sutegin.

**Oharra:** Gabonetako oporrak direla medio, datorren NOAUA! aldizkaria urtarrilaren 14an banatuko dugu. Urte berri on!

## Goardiako farmaziak

**Abenduak 22, asteazkena**  
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Abenduak 23, osteguna**  
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Abenduak 24, ostirala**  
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil  
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**Abenduak 25, larunbata**  
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**Abenduak 26, igandea**  
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**Abenduak 27, astelehena**  
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

**Abenduak 28, asteartea**  
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Abenduak 29, asteazkena**  
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Abenduak 30, osteguna**  
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Abenduak 31, ostirala**  
Oa, Kontseju Zarra 11 Usurbil  
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
*Chula farmazia (22:00-09:00),  
Kardaberaz, 48, Hernani (943 551 793)  
\*Usurbilen, soilik eguerdina arte*

## "Gipuzkoaren jatorria" DVD-a aurkeztuko dute abenduaren 29an

**G**ipuzkoaren historia biltzen duen DVD-a, "Gipuzkoaren jatorria" izenekoa aurkeztuko da abenduaren 29an Sutegiko auditorioan, iluntzeko 19:30etik aurrera. DVD-a hainbat udalek lagundu dute, tartean Usurbilgoak. Eta JoxAnton Artzeren parte hartze berezia ere nabarmentzekoa da, hainbat historialariek batera. Nabarralde bultzatu duen egitasmoan herrialdearen gertaera historikoen errepaso egiten da, 30 minutuz, 1025. urtean Ipuzkoa izeneko lurralde bat dokumentuetan aipatzen hasten denetik hasi-



AURKEZPENA SUTEGIN IZANGO DA.

ta. Ruben Marcillak zuzendu du ikus-entzunezkoa. Marcillak bera eta Angel Rekalde arduratu dira gidioiaz.

## Urtarrilaren 16an, bertso saioa

### Sarrerak urtarrilaren 3tik aurrera jarriko dira salgai

**A**maitzear den urte hasiera honetan Aekitaldiak izan zuen harrera bikaina ikusita, esperientzia errepikatzekotan dira Usurbilgo Udala eta Bota Punttuba bertso eskolakoak. Datorren urtarrilaren 16an bertso saioa antolatu dute. Arratsaldeko 18:00etatik aurrera, Sutegiko auditorioan izango dira: Andoni Egaña, Uxue Alberdi, Onintza Enbeita eta Unai Iturriaga. Gai jartzaile lanetan Inaxio Usarralde arituko da.

Sarrerak 5 eurotan erosi ahal izango dira aldeztatik, Oiardo Kiroldegian eta Txiribogan. Edo egunean bertan bestela, 8 euroren truke. Antolatzaileek, ekitaldira joateko asmoa duenari sarrera lehenbailehen erostea aholkatzen diote. Salgai izango dira urtarrilaren 3tik aurrera.



UNAI ITURRIAGA BERTSOLARIA.

### Dj Larra, urtezahar gauez

Urtezahar gaua kalean ospatzeko asmotan dabilenak, herriko tabernetan festa giroa aurkituko du, baina baita frontoian ere. Urte berriko lehen ekitaldia bertan ospatuko da, 2011ri ongi etorria eman eta gutxira. Goizaldeko 1:30etatik aurrera, musika eta dantza giroa nagusituko dira pilotalekuan, Larra Dj-ren eskutik.

**BENTA TABERNA**  
Oilasko erreak  
Ogitartekoak  
San Ignacio 1, behea  
USURBIL 943 36 93 05

**ERRAZKIN**  
Igeltseritza S.L.  
Tel.: 649 435 470  
Faxa: 943 372 679  
K./ Nagusia 47. Behea A.  
20170 USURBIL

**izagirre**  
ELEKTRIZITATEA  
943 36 50 95-609 06 81 11  
izagirreletrizitate@hotmial.com  
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

**TXAPELDUN TABERNA**  
razioak  
ogitartekoak  
plater konbinatuak...  
Muna lurra 2, 943 11 82 53





## ARTZABAL BASERRRIA

*Artzabal*

*Eguneroka menua 9€*

*Ostegunetik Igandera menu bereziak*

*Pintxoak: hotzak eta beroak*

*Kaxuelitak...*



# Marije

Arropa denda



Gabon hauetan gure bezeroen artean afari bat zozketatuko dugu



## AURKITU ZURE ESTILOA MARIJEN



## IKK'S 1 CODE 2 TWO PARIS



## III *Jmand Baskinordoguy* Lois PART TWO nora izagirre



Etxebeste 3- 943 36 11 06 USURBIL

